

Frantxoa Garat

Sorturtea: 1944

Heriotze urtea: 2018

Afiliazio herria: Hazparne



Ezpeletako erretore gisa egon zen denboran (1988-1997), Frantxoa Garatek Xan Iparraguirrerekin gogoetan aritzeko parada izan zuen, Besta Berriren ohiturari dinamika berri bat nola eman pentsatzeko. Denbora hartan, elizatiarrek eta klikak lagundurik egiten zen gorputz sailduaren prozesio sinple bilakatu zen. 1990ean, erabaki zuten besta hori bizi berritzea, zentzu eta edertasun gehiagora itzuliz (dantzari, jantziei, sinbolikari eman leku nagusia) . Arrakasta handia izan zuen eta horrela segitu zuen, 2000 arte. Orduan berriz ere prozesio sinple bilakatu zen. Frantxoa Garatek Besta Berri beste parrokia batzuetan ezagutu du, eta bereziki Armendaritzen (1977-1988), non besta horrek oposizio guziak agerrarazten baitzituen.

Hazparneko Zelai auzoaldeko Lordaenean 1944an sorturik, Hazparnen, Uztaritzen, Baionan, Akizen eta Erroman ikasi zuen (1968-1972: Teologia moraleko lizentzia).

2012an egin elkarrizketa batean, Besta Berri desberdinetan bizi izan zituen esperientziak eta ohitura horretaz egiten zuen irakurketa soziologikoa aipatu zituen.

2018an zendu zen.